#166
DOAN

2022 · 09 · 07
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

URDUÑAKO HERRI ESKOLA:
Permakultura ardatz, jolastokia eraldatu eta hezkuntza prozesuan integratuko dute espazioa 12-15 or.

SUSANA VERDE MENACHO:
"Oso esperientzia polita izan da Hockey Mundialean jokatzea" 26 or.

Itzulera, denona

AIARALDEA 2
Superberriak kateko denda guztiak itxi nahi dituzte
Enplegua Erregulatzeko Espedienteak 70 langile baino gehiago utziko ditu kalean

KULTURA 20-21
Pedro Ignacio Adrian Gonzalez
Laudioko musika bandako zuzendaria izan da denbora luzez, baina ibilbide hori amaitutzat jo du

KIROLA 28
Amurrio Club, fase berriari heltzeko prest
Zuzendaritza eta plangintza berriarekin helduko dio klubak denboraldiari, hilabeteetako gorabeheren ostean

Eamonn´s English Academy

Cambridge azterketak prestatzeko zentro ofiziala

LH 5.maila
HELDUAK

Prestaketa:
First For Schools (B2)
First (B2)
Advanced (C1)

2022/23 matrikulazioa zabalik

Tel. 664 484 579
eamonnsacademy@gmail.com
Zumalakarregi 54 behea, LAUDIO

G!
Graf!k
Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
grafik.eus

PROIEKTUEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA

Zure markaren komunikazio eraginkorrerako behar dituzun **produktuak diseinatu eta ekoizten ditugu markaketa teknika egokiena aukeratuz**: serigrafia, laser-grabatua, biniloa, sublimazioa, bordatua, tanpografia,...

herriz herri

Aiaraldea

Azken orduko aldaketarik ez badago, gaur (irailak 7) aurkeztuko du Superberriakeko zuzendaritzak ofizialki Enplegua Erregulatzeko Espedientea, supermerkatu kateko denda guztiak ixteko.

Superberriak kateko denda guztiak itxi nahi dituzte, 70 langile baino gehiago kalean utzita

Superberriak supermerkatuetako langileak hainbat aldiz mobilizatu dira euren lan baldintzak hobetzeko. Irudian, uztailean eginiko elkarretaratze baten irudia. **LAB**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

90 langile inguru kaleratu nahi dituzte guztira, LAB sindikatuak zehaztu duenez. "Joan den abuztuaren 30ean, Superberriakeko zuzendaritzak premiazko bilera bat egiteko deia egin zigun", azaldu du sindikatuak, "Bilera horretan, langile guztientzako enplegu-erregulazioko espedientea eta denda guztien itxiera jakinarazi zizkiguten".

Superberriak S.L. enpresak saltoki bana du Laudion, Amurrion, Ugaon eta Bilboko Alde Zaharrean, eta laurak itxi nahi ditu. Horrez gain, beste bi enpresatan ere ezarriko dute enplegu espedientea: Roxima 2020 SL.-n (Barakaldoko BM Shop denda kudeatzen duen entitatea) eta Grupo Basele S.L.-n. Hiru enpresak itxita, 90 langile inguru kaleratuko lituzkete.

Iturri sindikalek adierazi dutenez, jabe berdinak daude hiru izendapen horien atzean, "Berriak supermerkatuak orain arte kudeatu dituzten berdinak".

Azken asteko albistea da hau: langileen ordezkariek iragan astean jaso zuten lehen jakinarazpena. Larunbatean langileen asanblada jendetsua egin zuten Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan, eta gaur aurkeztuko dute jabeek espedientea ofizialki, kontsulta-aldiari hasiera emanez. "Bertan, Superberriakeko zuzendaritzak enpresaren egoerari eta enplegu-erregulazioko espedienteari buruzko hainbat agiri eman beharko dizkie langileen ordezkariei", azaldu du LABek.

LAB "borrokarako prest"

LABek du gehiengo sindikala Aiaraldeko dendetan, 4 ordezkarirekin (bosgarrena CCOOkoa da). Sindikatua prest agertu da lanpostuen defentsaren aldeko borroka pizteko: "Goiz da xehetasun gehiago emateko, baina argi dago ez dugula etsiko erabaki horren aurrean, eta baliabide, mekanismo eta ekimen sindikal guztiak martxan jarriko ditugu, lanpostuak defendatzeko eta enplegu-erregulazioko espedientea geldiarazteko".

Bilerak egin ditu eragileak eskualdean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiekin, egitasmoa aurkezteko

Horri lotuta, sindikatuko kideek gaineratu dute ez dutela ulertzen zuzendaritzak hartutako erabaki "oldakor eta presazkoa". "Izan ere, joan den uztailaren bukaeran, bi aldeek bilera eta negoziazioak adostu genituen irailaren erdialderako edo amaierarako; eta bestetik, urtebete eta hilabete gutxi pasa dira, Superberriakeko zuzendaritzak BM taldera bere denda guztiak frankizia gisa aldatu zituenetik".

Aurrekariak

Superberriak supermerkatuak iaz igaro ziren BM frankiziaren parte izatera, baina saltokien jabeak ez dira aldatu, langileen ordezkariek gogorarazi dutenez. Aiaraldeko saltokietako langileek borroka ziklo oparoa egin dute azken urteetan, eta lan baldintzak hobetzea lortu dute horrela. Uztailean egin zuten azken mobilizazioa, "orain arte lortutakoa ez galtzea" helburu. Enpresa Batzordeko kideek salaketa jarri zuten orduan lan ikuskaritzan, zuzendaritzak ez zielako enpresari buruzko "oinarrizko informazioa" ematen.

"Irailean ikusiko dugu egoera bideratu den edo ez, eta horren arabera hartuko ditugu erabakiak", azaldu zioten langileen ordezkariek uztailean Aiaraldea Komunikabideari. Iritsi da iraila, eta esan daiteke enpresaren erabakiek langileen aurreikuspen guztiak gainditu dituztela, baina txarrerako.

Aiaraldea

Renfeko lau hilabeteko doako abonuak eskuratu daitezke

Doakoa izan arren, 16 aldiz erabili behar da abonua. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iragan abuztuaren 24tik aurrera eta abenduaren 31ra arte tartea egongo da Renfeko aldiriko eta distantzia ertaineko zerbitzuen doako abonuak lortzeko. "Ukrainako gerrak eragindako prezioen gorakadari aurre egiteko neurria da" , azaldu du Renfek berak ohar batean.

Aldi berean, Gobernuaren asmoa da bultzada ematea garraio publikoaren erabilerari, ibilgailu pribatua baliatu ez dezaten herritarrek, energia menpekotasuna murriztuta.

Nola lortu abonua?

Enpresa publikoak jakinarazi du bi modu daudela lau hilabeteko abonuak edukitzeko. Alde batetik Internet bidez, webgune honetan erregistratuta edo Renfeko App bat erabilita -antza, jadanik 300.000 lagunek egin dute jadanik estatu osoan-. Eta, bestetik, salmenta makinetan eta bulegoetan, NANa aurkeztuta. Zalantzarik izanez gero, 919191567 telefono zenbakira deitzeko aukera dago.

Abonua, printzipioz, doakoa da, baina aldiriko txartela izateko 10 euroko fidantza ordaindu beharko da. Distantzia ertaineko abonuen kasuan, 20 eurokoa izango da kopurua. Neurria indarrean dagoen lau hilabeteetan ez bada gutxienez hamasei aldiz erabiltzen txartela, diru hori ez dute itzuliko. Aldiz, kopuru horretara helduta, dirua automatikoki bueltatuko dute.

Erdi Aroko etxe baten arrastoak topatu dituzte Aztarna elkarteak eta Sergio Escribano arkeologoak Gorbeian

Hainbat zeramika pieza topatu dituzte bertan. **Aztarna Elkartea**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Gorbeiako parke naturalean egon ziren Aztarna elkarteko kideak uztailaren 18tik 22ra bitartean, Sergio Escribano arkeologo laudioarrarekin batera. Indusketa egin dute parkean dagoen babesleku batean.

Elkarteko bazkideetako batek, Luiso Lopezek, topatu zuen gunea, eta iraganean erabilia izan zenaren susmoa piztu zitzaion. Izan ere, 19 zeramika pieza topatu zituzten bertan, eta Erdi Arokoak (XII-XIII. mendeen artekoak) zirela ondorioztatu zuten gero, Aixa Barbain ikasleak eta Sergio Escribano irakasleak EHUn eginiko ikerketaren bidez.

Erdi Aroko lehen babeslekua

Aztarnako kideek balioan jarri dute eginiko aurkikuntza, EAEn dokumentatzen den Erdi Aroko garai horretako lehen babeslekua delako. “Okupazio gehienak historiaurrekoak edo askoz berriagoak dira; eta, gehienez, Goi Erdi Arokoak. 1.000 urtetik aurrerako populazio-jarraibideak oso gutxitan lotzen dira labar-eremuekin”, azaldu dute elkarte etnografikoko kideek.

Horregatik erabaki zuten gunea induskatzea, eta modu horretan ondorioztatu dute aztarnak etxe batenak direla. Basoko baliabideak ustiatzera bideratzen zen eraikina, eta Erdi Aroan zehar erabili zen. Gunearen okupazioaren “intentsitatea” nabarmendu dute Aztarnako kideek, hiru “okupazio-maila” identifikatu direlako, bakoitza zoru ezberdin batekin. Laborategiko azterketak egiteke daude oraindik, baina Aztarnako kideek uste dute gunea Behe Erdi Aroan okupatu zela azkenengo aldiz. "Beste bi okupazioak, aldiz, Tarteko Erdi Arokoak izan ahalko lirateke", aurreikusi dute. Indusketen sustatzaileek uste dute topatutako zeramika piezek balioko dutela kronologia bat zehazteko. Era berean, gaineratu dute guneak izandako okupazioak lotuak egon daitezkeela Erdi Aroan garatutako jarduera ekonomikoetara: "Burdinarekin, egurrarekin, harriarekin edota ur-errotekin erlazionatutakoak, kasu". Aurkikuntzen balioa ikusirik, etorkizunean indusketa kanpaina gehiago egitea planteatzen ari dira Aztarnako kideak.

a-tik ESTUDIO
ENPRESENTZAKO ETA PARTIKULARRENTZAKO ZERBITZU GRAFIKOAK
DISEINUA: marka-irudia, errotulazioa, packaginga, kirol-uniformeak...
ARGITALPENAK: liburuak, aldizkariak, argazki-albumak...
WEB: webguneak, online dendak, liburu elektronikoak, edukien eguneratzeak...
PUBLIZITATEA: MUPI zirkuitua Laudioko Zumalakarregi etorbidean.

aldizkariak eta liburuak
publizitatea Laudion
kirol ekipamendua
web
644 665 639
info@a-tik.com

herriz herri

Laudio

Hasieran aurreikusitakoa baino milioi bat euro gehiago bideratuko du Udalak Antzokiaren eraikuntzara

Latiorron egongo da kokatuta antzokia. **Laudioko Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

6.506.602,44 euroko aurrekontua berrosatu du tokiko erakundeak, aurreko lehiaketa bertan behera utzi ostean

Irailaren 2an abiatu zuen Laudioko Udalak Antzokiaren eraikuntzaren obrak esleitzeko lehiaketa, bigarren aldiz. Tokiko erakundeak ekainean plazaratu zuen lehen eskaintza, baina ez zuen esleitzerik izan, ez zelako enpresarik aurkeztu.

Gauzak hala, eskaintza berplanteatu behar izan du tokiko erakundeak, eta nabarmen handitu du obra egitearen truke emateko prest dagoen diru kopurua. 5.180.863,11 euroko eskaintza ekonomikoa plazaratu zuen lehen lehiaketan. Oraingoan, aldiz, 6.506.602,44 eurokoa eskaini du; hau da, 1,09 milioi eurotan handitu du espazioa eraikitzeko aurrekontua.

Ikusteke dago diru extra hori Udalak jarriko duen edo beste nonbaitetik etorriko den. Momentuz, bi erakunde publiko batu dira antzokiaren finantzaziora: Arabako Foru Aldundiak 2 milioi euro jarriko ditu (Aiaraldea ekonomikoki suspertzeko planaren bidez) eta Eusko Jaurlaritzak 500.000 euro.

Epeak

Enpresa interesdunek irailaren 28ra arte izango dute lehiaketara aurkezteko epea, eta urriaren 4an irekiko dituzte eskaintzan gutunazalak. Behin kontratua esleituta, hautatutako enpresak 24 hilebeteko epea izango du lanak hasi eta bukatzeko. Gauzak hala, lehiaketa honek arrakasta baldin badu, antzokia 2024ko urrirako prest egon daitekeela aurreikusi daiteke.

Artziniega

Hileta zibilak eta heriotza omenaldiak baimentzeko prozesua abiatu du Artziniegako Udalak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Udal ordenantza onartzeko izapideak hasi ditu tokiko erakundeak heriotza omenaldiak ospatu ahal izateko. Hala, hileta zibilak edota heriotza omenaldiak egiteko kontsulta publikoa egin dute Artziniegako Udalaren webgunean. "Legeedo erregelamendu-proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratu da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkagarrienen iritzia jaso da", adierazi dute tokiko erakundetik. Gauzak horrela, herritarrek abuztuaren 31ra arte izan zuten ekarpenak egiteko aukera.

Modu horretan nahi dute erlijio eta kultura aniztasuna bermatu, "muga bakarra ordena publikoa legearen arabera mantentzeko beharrezko dena izango da". Udalaren ustez, ehorztetxe zibilak edo heriotzagatiko omenaldiak egitea ehorzketa duin eta pertsonal baten bidez ehorztetxe erlijiosoei alternatiba bat eskaintzeko gizarte-beharraren ondorio da, eta "Artziniegako Udalak gero eta gehiago eskatzen den gizarte-premia bati erantzun nahi dio".

"Ordenantza honen bidez, beraz, Artziniegako gizarte zibila osatzen duten senideek, lagunek, erakundeek eta/edo entitateek hildakoei egin nahi dizkieten ospakizunak arautu nahi dira, euren pertsona omentzeko edo agurtzeko, euren ekarpen komunitarioak edo balio etikoak edo giza balioak aitortzeko", erantsi dute.

750 kilometro egin dituzte Artziniegari bueltaka

Hainbat herritar batu ziren ekimenera. **Artziniegako Udala**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Artziniegako 750. urteurren ospakizunek ez dute etenik. Uztailean udalerriaren abizena duten pertsonen topaketa egin zuten, eta beste erronka berri bat burutu zuten irailaren 6an. Artziniegako Txirrindularitza Elkarteak 750 kilometro osatu zituzten Garai plazatik abiatuta eta herriari bira emanez. Toñin Luengas frontoian gainera, Alberto *Il Diavolo* Vallések egun osoa igaro zuen arrabolan, eta bertan egindako kilometro bakoitzeko euro bat bideratu zuten haurren minbiziaren aurka borrokatzeko. Vallesékin batera, eskualdeko hainbat ekimen solidarioetan aritu den Spiderabel ere batu zen hitzordura, hiribilduko kaleetan barrena korrika

herriz herri

Aiara

Aiarako lau errepide hobetuko dituzte datozen hiru hilabeteetan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Arabako hainbat kontzejuetako errepideak hobetuko ditu Arabako Foru Aldundiak, hartxinga baliatuta. Nuño y Pescador S.A. enpresari esleitu berri dizkiote lanak, 774.711 euroren truke. Aiarako lau errepide daude hobetuko dituztenen artean: Lekamañako sarbidea (A-4604), Aloriako sarbidea (A-4608), Ozeka eta Luxora sarbidea (A-4619) eta Beotegi eta Kexaa arteko bidea (A-4620)

Enpresak hiru hilabete izango ditu lan guztiak egiteko.

Amurrio

4.500 euro jasoko dituzte jaietako 'elkartasun txosnatik' X Hauskorra Sindromearen elkartekoek

Chill Mafiak jo zuen Mendiko Eskolako kontzertu gunean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Amurrioko jaiek ez-ohiko txosna izan dute aurten. Hain zuzen, udalaren kontzertu nagusiak Mendiko eskolan izan dira, eta bertan edari eskaintza egin du Amurrio Trail elkarteak. Alabaina, eskuratutako dirua X Sindrome Hauskorraren elkartera bideratzeko erabakia hartu zuten hasieratik. Hargatik deitu zioten 'txosna solidarioa'. Amurrio Trail taldeak sare sozialetan zabaldu duenez, 4.500€ eskuratu dituzte orotara jaietan elkarte horrentzako: "4.500 euro atera ditugu Mendiko eskolako elkartasun txosnan, diru hau Euskal herriko X hauskorra sindrome elkartearentzat joango da. Eskerrik askoooo!". Herriko eragilea pozik azaldu da emaitzarekin, eta jasotako babesa eskertu du: "Eskerrik asko lagundu duzuen guztioi, bolondresei, Oinkariak taldeari, Amurrioko txirrindulari elkarteari...".

Urduña

Musika eskola sortu dute, Santa Zezilia bandaren eskutik

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Musika Eskolak aurki irekiko ditu ateak. Santa Zezilia musika bandarekin elkarlanean abiatu du Udalak egitasmoa, eta irailaren erdialdean ekingo diote klaseak emateari. Musika bandaren lokala bilakatuko dute ikasgela, hots, Kale Nagusia etorbideko 10. zenbakian. Aurreratu dutenez, bi irakasle izango dituzte: Jesus Cipriano Urrutia eta Jose Angel Santos. Saioek 1.5 orduko iraupena izango dute, eta banakako klaseak izango dira. Ondorengo musika tresnei buruzko prestakuntza eskainiko diete interesdunei: tronpeta, tronboia, tronpa, bonbardinoa, tuba, klarinetea eta saxofoia.

Prezioari dagokionez, ikasle bakoitzak 35-45€ artean ordaindu beharko ditu hilero. Hautatutako ikasgaien araberakoa izango da prezioa. Adin mugarik ez dute jarri, baina 8 urte beteta izatea beharrezkoa izango da parte hartzeko. Orotara, gehienez, 18 ikasle hartu ahalko dituzte lehenbiziko edizioan, eta formakuntza ordutegiak 16:30etik 21:30era izango dira, astean bi egunez.

Matrikulazio epea itxita dago gaur-gaurkoz (ekainaren 15etik uztailaren 16ra bitartean izan zen), baina edozein zalantza izanez gero Kultura Arloarekin jarri daiteke harremanetan.

argazki erreportajea

Bi urteko hutsunearen ostean, aurtengoan bai. Aiaraldeko herri eta auzoetako jai maratoiaren itzulera ekarri du aurtengo udak. Eztanda egin dute kaleek, eta ez da magia, parte hartzea eta antolakuntza baizik. Aiaraldea Komunikabideak argazkietan bildu ditu une horiek guztiak.

Indartuta itzuli dira AiarIdeko herri eta auzoetako jaiak

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Pandemiak eragindako hutsunearen ostean Aiaraldeko herri eta auzoetako jaien itzulerak markatu du aurtengo uda.

Kaleetan egin dute elkar topo berriz milaka herritarrek, bi urte hauek igaro izan ez balira bezala. Baina igaro dira, eta festen faltak are gehiago piztu ditu aiaraldearren barrenak eta disfrutatzeko nahiak.

Hain zuen ere, aiaraldearrak izan dira udako jaietako protagonista nagusiak, eta urrutitik etorritako pop-izar ezagunenek ere ezin izan diete itzal egin. Ekitaldi guztiak gainezka egon dira, eta auzorik txikienek ere hiri handi bateko aste nagusia bailira ospatu dituzte bertako jaiak. Ez dago magiarik, parte hartzea eta antolakuntza baizik. Hori da udako jaietako arrakastaren sekretua.

Oroimenerako irudiak

Itzulerak irudi eder ugari utzi ditu hilabete hauetan. Aiaraldea Komunikabidea han hemenka aritu da une gogoangarri guzti horiek ehizatzen. Denak ez badira ere, igarotako une asko berriz bizitzeko parada dago aiaraldea.eus atariko argazki galerietan.

argazki erreportajea

IRAILAK
16,17 eta 18
LATORRO
auzoko jaiak 2022
16, ostirala
DJ KAKTUS
(euskaraz dantzatu nahi dut)
LOWE
(80 eta 90etako rock bertsioak)
MOONSHINE WAGON
DJ TESO
18, igandea
XXXI. MARMITAKO TXAPELKETA
17, larunbata
Mendi martxa
KIRIKIÑO
Herri bazkaria
PUMP-TRUCK
LYRIKAN backed by dHastHBeats
OXABI Erromeria
DJ MASA

argazki erreportajea

argazki erreportajea

Lan bila zabiltza?

HAZILANek 800€/hileko 12 beka eskaintzen ditu 4 hilabetez praktikak egiteko

20 eta 44 urte bitarteko, GMLHko edo unibertsitateko ikasketak eta Amurrion erroldatuta dauden pertsonentzat.

Zure lanarekin

HAZILAN

Hasiera irailaren 26an

EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtsak zure etorkizunean inbertitzen du
UNIÓN EUROPEA
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro

AMURRIO BIDEAN GARAPEN AGENTZIA

Tel 945 891 721 | empresa@amurriobidean.org | www.amurriobidean.org

argazki erreportajea

argazki erreportajea

erreportajea

Urduñako Herri Eskolako jolastokiaren metamorfosia, permakultura ardatz

Goitik behera aldatuko da Urduñako Herri Eskolako jolastokia ikasturte honetan: asfaltoa altxatu eta espazioa birnaturalizatuko dute, azken urteetako proiektuari segida emanez. Ivan Tellaetxe da egitasmoaren sustatzaileetako bat, eta permakultura izan dute lan ardatz nagusia.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Eraldaketa sakon baten atarian dago Urduñako Herri Eskolako jolastokia. Duela hiru urte abiatu zuten espazioa birnaturalizatzeko erronka, eta denbora guzti honetan hainbat aurrerapen egin dituzte: berdeguneak berreskuratu, jolas-gune berriak sortu, eskolak ikasgeletatik aire librera atera... Proiektu potoloa da, hiri mailako bestelako proiektu estrategikoekin integratzeko aukera eskainiko duena (sukalde zentrala kasu). Permakultura izan dute ardatz proiektua garatzeko, eta Ivan Tellaetxe urduñarra izan da sustatzaile nagusia. Baina, zer da permakultura?

Permakultura ardatz

Permakultura diseinu ekologikoko zientzia bat da, eta hiru oinarri etiko ditu ardatz: lurraren zaintza, pertsonen zaintza eta soberakinen banaketa justua eta energiaren erabilera efizientea. Terminoa Bill Mollinson eta David Holmgren irakasle australiarrek sortu zuten 1970eko hamarkadan, mundu osoko nekazal kulturetan geratzen ari zen ezagutza tradizionalen galeraz kezkatuta. "Izan ere, 1960ko hamarkadan iraultza berde bezala deiturikoak prozesu industrialak inplementatzen hasi zen nekazaritza ekoizpenean; nagusiki hidrokarburo, pestizida edota fertilizante kimikoen erabilerarekin — azaldu du Tellaetxek — Horrek migrazio masibo bat eragin zuen landa eremutik urbe handietara, nekazaritza eta landa eremua bera debaluatuz, eta, aldi berean, hiriguneetako biztanleen beharrak asetu behar zituen nekazaritza are gehiago industrializatuz".

Egoera hori iraultzeko asmoz Mollinson eta Holmgrenek permakultura kontzeptua sortu zuten: kultura iraunkorra. "Permakulturak, funtsean, sistematizatu egiten ditu mundu osoko nekazal kulturetako patroi komunak. Eta, nekazaritza abiapuntu duen arren, gizakiaren habitat guztietan eragiteko helburua du", azpimarratu du Tellaetxek.

Patroi guzti horien sintesia eraikuntza prozesuetan biltzen du permakulturak; hain zuzen ere, Urduñako Herri Eskolako jolastoki berria eraikitzeko baliatzen ari diren eta baliatuko dituzten diseinu printzipioak dira horiek, eta horrela definitu ditu herri eskolako atezainak: "Diseinu printzipio horiek funtsezkoak dira landa eremuan zein hirietan habitat iraunkorrak eraikitzerako orduan. Biodibertsitateari arreta, elementu desberdinak integratzea segregatu beharrean, naturako patroiak kopiatzea eta aplikatzea, energiaren erabilera jasangarria energiaren metaketaren bidez, uraren erabilera jasangarria edota hondakinen birziklatzea dira printzipio horietako batzuk. Hain zuzen ere, Urduñako Herri Eskolako jolastokiaren birmoldaketan jarraituko dituzten eraikuntza irizpideak

erreportajea

dira hauek, Tellaetxek aipatu duenaren arabera.

Proiektu integrala

Tellaetxek Hego Amerikan ezagutu zuen permakultura eta Bartzelonako Monsant Permakultura Institutuan garatu zituen gerora zientzia honen gaineko ezagutzak. Hainbat urte mundutik bidaiatzen igaro ostean, Delikara bueltatu zen Ivan Tellaetxe duela hiru urte, eta familiak zuen lursail batean abiatu zuen permakulturan oinarritutako proiektu pertsonala: bizi proiektu bat garatu sarera konektatu gabe, beharrezko energia eta lehengaiak berak ekoitziz.

Handik urte batera Urduñako Udalak erronka luzatu zion; nagusien egoitzako lorategia birnaturalizatzea. Lorategi horretan erein zen proiektu integral baten lehenengo hazia. "Bigarren urtean, egoitzako beste lursail bat atontzea eskatu zidaten, eta nik eskolako ikasleekin ortu bat egitea proposatu nien", azaldu du Tellaetxek.

Urduñak sukalde zentrala du,

Urduñako Herri Eskolako jolastokiaren birmoldaketan permakulturak ezarritako eraikuntza printzipioak hartu dira oinarri

azpiegitura desberdinek (egoitzak, eskolak...) sukalde berdina konpartitzen dute, Udalak garatutako elikadura subiranotasunaren estrategiaren barruan. Gauzak horrela, sukaldean baliatzeko barazki eta lekaleak landatzen hasi ziren Urduñako ikasleak nagusien egoitzako ortuan. Pandemiak, ordea, uzta jasotzeko garaian eten zuen proiektua.

"Urduñarrak, ordea, oso burugogorrak dira (barreak) eta ez zioten proiektuari uko egin. 2020ko irailean hasi zen ikasturte berrian, ikasleek egoitzako ortuan egoterik ez zutenez, mendira eraman genuen proiektua — azaldu du Tellaetxek — Permakultura ez da soilik leku bat birnaturalizatzea, baizik eta gure ikuspuntua aldatzea ere. Gauzak horrela, ibilbide desberdinak sortu genituen eskolak mendian egiteko. Eskolako ikasle guztiek parte hartu zuten egitasmoan, hiru eta hamabi urte bitarteko ikasleek. Ikastetxeko lau hormetatik atera eta basora eraman genituen eskolak".

"Inplementatu nahi dugun hori eraldatzeko asmoa du proiektuak; haurren hezkuntza prozesua hain zuzen ere"

Jolastokia birnaturalizatuz

Baso eskola garatzen ari zirela Ivan Tellaetxek Bartzelonan ezagututako El Globus Vermell elkarteko kideen deia jaso zuen. El Globus Vermell 'Patios x Clima' proiektuko sustatzailea da, Espainiar Gobernuko Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren laguntzaz. "Urduñan abiatutako proiektuaren inguruan galdetu zidaten. Izan ere, 'Patios x Clima' proiektuaren baitan Euskal Herrian esperientzia pilotu bat abian jartzeko interesa zuten. Nik Urduñara gonbidatu nituen. Hiriko giroa eta Udalaren inplikazioa ikusi ostean, egitasmo berriarekin lanean jartzea erabaki zuten". Permakulturak bildutako oinarriak hartu dituzte ardatz Urduñako Herri Eskolako jolastokiaren birnaturalizazio prozesuan.

Ivan Tellaetxek berak gidatu du prozesua eta jarraitutako urratsak azaldu ditu: "Azken emaitzari ez ezik, prozesu osoari eman nahi diogu guk garrantzia, eta horretan ari gara. Edozein diseinu jasangarri eraikitzeko, hainbat dira jarraitu beharreko urratsak:

Ivan Tellaetxe da proiektuaren sustatzaileetako bat. **Aiaraldea.eus**

erreportajea

Emaitzak agerikoak dira; haurrak eraldaketaren protagonista izan dira, eta orain nekez ikus daitezke ikasleak asfaltozko zelaian jolasten

organiza: el globus vermell

con el apoyo de: GOBIERNO DE ESPAÑA — VICEPRESIDENCIA CUARTA DEL GOBIERNO — MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO — Fundación Biodiversidad — PIMA adapta — oficina Española de Cambio Climático

PROYECTO	PROMOTOR	EMPLAZAMIENTO
Anteproyecto de adequación del patio de la escuela pública de Orduña MODIFICACIÓN MAYO 2022	Escuela pública de Orduña Ayuntamiento de Orduña	Paseo Antigua, 9 ORDUÑA

Nagore Ayesa arkitektoak gidatutako Giltzarri arkitektura bulegoak egindako Urduñako Herri Eskolako jolastoki berriaren behin-behineko diseinua, azken baimenen esperoan aldake

pertsonen eta lurraren beharrak kontuan hartu, eskura dauden baliabide naturalak ezagutu... datu bilketa horretatik ateratako ondorioek diseinu konkretu bat eta eraikuntza prozesu bat edo beste lehenetsiko dute. Urduñako eskolako jolastokian, esaterako, ikusi genuen berdeguneak behar zuten eremu horietan ez zegoela biodibertsitaterik, ondorioz, garatutako proiektuan biodibertsitatea aberastuko duten diseinu eta egiturak gailendu dira".

Espazioa eta denbora

Azken bi ikasturteetan garapena izan du proiektuak, eta abiatu berri den kurtso berri honetan izango du jolastokiak eraldaketarik handiena eta ikusgarriena, baina, aurretik lan handia egin izan dute.

"Diseinu prozesu parte hartzaile bat garatzea izan zen lehenengo urratsa, eskolako hezkuntza komunitate guztiarekin: udala, irakasleak, eskolako langileak, familiak, eta, bereziki, ikasleak". Sei hilabete eman zituzten El Globus Vermelleko kideekin prozesu horretan, eta espazioa ez ezik hezkuntza prozesuko denborak ere eraldatu behar zirela ondorioztatu zuten: "Hezkuntza espazio eta denboren birnaturalizazioa da Urduñan garatuko duguna. Inplementatu nahi dugun hori eraldatzeko asmoa du proiektuak; haurren hezkuntza prozesua hain zuzen ere".

Formakuntza pilotu bat garatu zuten ideia horretan sakontzeko, eta Hezkuntza eta Ingurumen Sailetako kideek ere hartu zuten parte. Behin formakuntza jasota proiektuaren lehen faseari ekin zioten.

Espazio hilak berreskuratuz

Lehen fasean jolastokiaren espazio berdeen birnaturalizazioa gauzatu dute. "Espazio berdea zena, espazio hila zen egiatan — nabarmendu du proiektuaren sustatzaileak — Lurrak ez zeukan materia organikorik, ez zegoen biodibertsitaterik, pedagogikoki ez zeukan inolako erabilerarik... haur gehienek asfalto gainean jolasten zuten".

2021eko udan berdeguneetako profilak aldatu zituzten, altuera desberdinen bitartez materia organikoaren sorrera sustatzeko. Horrekin batera, prozesu bat garatu zuten ikasturtean zehar ikasleak izan zitezen espazioaren eraldaketa berriaren protagonista nagusiak.: "Tailerrak egin genituen maila guztietako ikasleekin espazioaren inplementazioan sakontzeko. Hala nola, 120 zuhaitz landatu genituen, ortu txiki bat atondu, espazio desberdinak sortu dira batzuk jolas aktiboagoentzako beste batzuk lasai egoteko..." Emaitzak agerikoak dira, haurrak eraldaketaren protagonista izan dira, eta birnaturalizatutako espazioa eurena egin dute. Orain nekez ikus daitezke ikasleak asfaltozko zelaian jolasten: "Ikasleek espazioa euren bizitzetan integratu dute. Eurak dira hori zaintzeaz arduratzen direnak. Ikasle eta irakasleek ulertu dute jolastokia ikasteko espazio ere badela. Adibide bat jartzearren, ikasleek labirintoa deitzen dioten espazioa baso jasangarri bat da, bosgarren mailako ikasleek diseinatua eta eraikia. Nik tresnak eskaini nizkien bakarrik, baina haurrak dira sortzaileak".

> **"Curriculuma aldatuko dugu eskolan. Ordutegi finkoak desagertuko dira eta prozesu pedagokikoak espazio berrira egokituko ditugu"**

Eraldaketarik sakonena

"Behin berdeguneak berreskuratuta, eta hezkuntza prozesua ikasgelako lau hormetatik harago garatzen den zerbait dela barneratuta, ikasturte honetan obra nagusiari helduko diogu: asfaltoa altxatzea", azaldu du Ivan Tellaetxek.

erreportajea

tak egon daitezke azken emaitzan. / **Giltzarri arkitektura estudioa, Aiaraldea.eus**

Besteak beste, aire libreko ikasgela handi bat eraikiko dute, agora espazio bat, edota jolastoki natural handiago bat izango dira etorkizun hurbil batean jolastokiko protagonista nagusiak. Horretarako, bioeraikuntzan espezializatutako Giltzarri arkitektura bulegoa burubelarri ari da diseinuekin lanean.

Guztira 500 metro koadro asfalto kenduko dituzte eremu berriaren mesedetan: "Gaur egungo berdegunearen luzapen bat izango da funtsean. Noski, asfaltozko karratu bat mantenduko dugu, egungo saskibaloi kantxa dagoen lekuan, haurrek ere espazio hori erabili nahi dute eta, baina esparru berdea izango da jaun eta jabe", nabarmendu du Tellaetxek.

Erronka handiena, ordea, hurrengo ikasturtean inplementatuko dute, obra guztia amaituta dagoenean, hain zuzen ere: "Curriculuma aldatuko dugu eskolan. Ordutegi finkoak desagertuko dira eta prozesu pedagokikoak espazio berrira egokituko ditugu. Proiektuak eta hezkuntza-ibilbideak izango dira hezkuntza prozesuaren ardatza".

Une honetan obrak abiatzeko baimen guztiak tramitatzen ari dira, eta datorren urte hasieran ekingo diete lanei. Zailtasunak ere aurkitu dituzte bidean, baina ari dira horiek gutxika gainditzen: "Jolastokiaren azpitik erreka bat igarotzen dela jakinarazi digu URA agentziak, horrek mugatu egin ditu egin ditzakegun lanak. Proiektu bizia da gurea, eta diseinua etengabeko eraldaketan dago, zailtasunei aurre egiteko", azpimarratu du Ivan Tellaetxek.

"Ohituak gaude berehalako emaitzak ematen dituzten prozesuetara, baina, funtsean, ezer gutxi aldatzen dutenak"

Prozesu sarkorra da Urduñan abiatutakoa, eta Tellaetxek argi du hasieran talkak sor daitezkeela: "Ohituak gaude berehalako emaitzak ematen dituzten prozesuetara, baina funtsean ezer gutxi aldatzen dutenak, eta uste baino lehen ustelduko direnak. Arnas luzeko egitasmoa da hau". Halaber, emaitzei erreparatzea besterik ez dagoela dio, abiatutakoa bide zuzena dela jakiteko: "Gutxika bada ere geroz eta aitortza gehiago duten proiektuak dira hauek, eta Urduñakoa da adibiderik onena: eskolako komunitateak eta Urduñako Udalak sinistu egin du proiektu honetan, eta egundoko laguntza eskaini dute. Eusko Jaurlaritzak ere konfiantza jarri du egitasmoan. Administrazioa ari da ulertzen gure aztarna klimatikoa murrizteko horrelako espazioak ezinbestekoak direla. Urduñan badago ongarria norabide horretan proiektu integral indartsu bat garatzeko".

AIARALDEA - FAKTORIA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

agenda

2022/09/07
2022/09/21

Irailean ere ez du etenik izango Aiaraldeko *herrietako jai maratoiak*

Abuztuaren lekukoa hartu du irailak, baina ikasturte berriaren hasierak ez du apaldu aiaraldearren festa-gogoa. Izan ere, eskualdeko herri eta auzo ugaritan ospatuko dituzte jaiak datozen egunetan, uda sasoia agurtu aurretik.

Artziniega, Urduñako Antigua auzoa, Baranbio, Aiara, Latiorro auzoa, Arrankudiaga eta Zolloko Atxeta auzoa... plaza ugari daude oraindik festa-giroaz gozatzeko.

Artziniega

Iragan irailaren 2an abiatutako jaien azken txanpa ospatuko dute asteburu honetan Artziniegan. Aste osoan luzatu dira ekintzak baina jarduera gehienak asteburuan pilatu dituzte. Gauzak horrela, musika, kirola eta gastronomia uztartuko dituzte datozen egunetan. Nabarmentzekoa da ostiralean -irailak 9- Hiriko ateko eszenatokian arituko den La Regaliz taldearen kontzertua. Hauek La Raiz talde ezagunaren bertsioak joko dituzte.

Igandean agurtuko dituzte jaiak 2023ra arte. Baina aurretik Interkuadrilla lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Barnabio

Baranbion ere jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Herrigunearen zein Garrastatxuren artean banatuko dituzte ekintzak. Izan ere, ostegun eta ostiralean baseliza izango da egitarauaren epizentroa, Ganorabako's talde orozkoarraren emanaldiarekin, besteak beste. Irailaren 10ran, aldiz, Baranbion bertan ospatuko dute jaietako egun handia. Oraingoan ere Garilak 26 erromeriaren kontzertua izango da plater nagusietako bat.

Festa gehiago

Artziniegan eta Baranbion ez ezik, Urduñan eta Aiaran ospatuko dituzte jaiak asteburu honetan. Urduñakoa, gainera, ospakizun bikoitza izango da Koroatze jaien errepikapena eta Antigua auzoko jaiak ospatuko dituztelako.

Aiaran, Etxaurrengo ohiko erromeria berreskuratuko dute aurten, bi urteko etenaren ostean.

Aste hau igarota, Laudioko Latiorro auzoaren eta Atxetaren txanda izango da.

ARTZINIEGAKO JAIAK

09.08 Osteguna
13:00 ARTZINIEGA
KALEJIRA BASAURIKO HAIZE DOINU TXITULARIEKIN
Herrian zehar

09.08 Osteguna
14:30 ARTZINIEGA
HERRI BAZKARIA ETA BINGOA
Toñin Luengas Frontoia

09.08 Osteguna
19:00 ARTZINIEGA
LOS CINCO BILBAINOS
Hiriko atea

09.09 Ostirala
18:00 ARTZINIEGA
FRONTENIS ETA ARTZIKIROL FINALAK
Toñin Luengas frontoia

09.09 Ostirala
21:00 ARTZINIEGA
KUADRILLEN ARTEKO AFARIA
Barrenkale

09.09 Ostirala
23:30 ARTZINIEGA
LA REGALIZ
Hiriko atea

09.09 Ostirala
01:30 ARTZINIEGA
KRESALA ERROMERIA
Hiriko atea

09.10 Larunbata
14:00 ARTZINIEGA
HERRI BAZKARIA
Arteko landa

09.10 Larunbata
19:30 ARTZINIEGA
KUADRILLEN JAITSIERA FANFARREAREKIN
Arteko landa

09.10 Larunbata
21:30 ARTZINIEGA
ESKUPILOTA PARTIDAK
Toñin Luengas Frontoia

09.10 Larunbata
21:30 ARTZINIEGA
DON'T PANIC, MUGAN ETA DJ MARKEL CALONGE
Hiriko atea

09.11 Igandea
09:00 ARTZINIEGA
MARMITAKO ETA PATA TORTILLA LEHIAKETA
Goikoplaza

09.10 Larunbata
21:00 AMURRIO
DANTZA PLAZA PATXI PEREZEKIN
Barnabio

09.10 Larunbata
22:00 AMURRIO
PARRILLADA
Barnabio

09.10 Larunbata
22:00 AMURRIO
GARILAK 26
Barnabio

ANTIGUAKO JAIAK

09.09 Ostirala
17:30 URDUÑA
TXUPINAZOA
Antigua auzoa

09.09 Ostirala
18:00 URDUÑA
HAURRENTZAKO JOLASAK ETA DUATLOI JOKOAK
Antigua auzoa

09.09 Ostirala
20:00 URDUÑA
TXOKOLOATADA
Antigua auzoa

09.09 Ostirala
23:00 URDUÑA
BERBENA ETA BINGOA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
10:00 URDUÑA
MENDI MARTXA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
11:00 URDUÑA
TORTILLA LEHIAKETA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
15:00 URDUÑA
AUZO BAZKARIA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
17:00 URDUÑA
BRISKA TXAPELKETA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
17:30 URDUÑA
UMEENTZAKO PUZGARRIAK ETA APARRA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
20:00 URDUÑA
DANTZALDIA ATZOKO GAZTEENTZAT
Antigua auzoa

Bueltan dira kontzertuak
Orbeko etxera

Ohiko eskaintza musikalarekin zabalduko ditu berriro ateak Laudioko Gardea auzoko Orbeko Etxeak. Larunbat honetan -irailak 10- hiru kontzertu eskainiko ditu, iraileko lehenengo jaialdian. Madrileko Furralla crust taldea, Laudioko Psilocybe trash metal taldea eta Bartzelonako Dead People taldea arituko dira oholtza gainean 21:00etatik aurrera.

Ibilaldia egingo dute
Jesuri mendian eraiki nahi duten parke eolikoaren geldiarazteko

Arabako Mendiak Aske plataformak mendi martxak antolatu ditu Araban eraiki nahi dituzten parke eolikoek kaltetuko dituzten ingurune naturaletara, 'Babestu maite duzun mendia' lemapean. Ekainean abiatu zuten ekimena eta honezkero Arabako hainbat txokotara eraman dute proiektu hauen aurkako aldarria. Aiaraldean ere egingo dituzte parke eolikoen aurkako irteerak, Orozkon eta Amurrion, hain zuzen ere, irailaren 10ean eta urriaren 29an, hurrenez hurren. Jesuri mendikoa izango da, beraz, eskualdeko lehen hitzordua, eta Araba mailan egiten den hirugarrena. Bertan, Green Capital Development enpresak 200 metroko bost aerosorgailu altxatu nahi ditu.

Bi ibilbide egongo dira irailaren 10ean, Laudio zein orozkotik. Bi martxak 10:00etan abiatuko dira Laudioko Herriko Plazatik eta Orozkoko Zubiaur plazatik, hain zuzen ere.

Artziniegako Antzinako Azoka
ospatuko dute berriro irailaren 17an

Duela bi urte ospatu zen azkenekoz Artziniegako Antzinako Azoka. COVID-19aren pandemiaren ondoriozko etenaldiaren ostean, ekimenaren edizio berria prestatzeari ekin dio bizilagun talde batek.

Berrituta itzuliko da Artziniegako Aintzinako Azoka irailaren 17an, hausnarketa prozesu bat egin baitute egitasmoa birpentsatzeko. Apirilean hasi ziren bilerak egiten, Udalak deituta. Lehen hartu-eman horietatik sortu zen merkatua antolatzeko batzordea, eta talde eragile horrek hartu du bere gain azokaren antolakuntza.

Urduñako zerua
parapenteen topaleku

Urduñako Gorobel Parapente elkarteak antolatuta, dozenaka kirolari elkartuko dira iralaren 17an Urduñan. Honakoa hiriko elkarteak antolatzen duen V. edizioa izango da. Parapenteaz gozatzeko aukera ez ezik, barbakoa, biplazetan hegan egiteko aukera edota musika eskaintza ere egongo da bertaratzen diren herritar guztientzat.

09.11 Igandea
11:00 ARTZINIEGA
TXIRRINDULARITZA LASTERKETA, XX. ARTEKO GURE AMA SARIA
Hiriko atea

09.11 Igandea
17:30 ARTZINIEGA
HERRI KIROL ERAKUSKETA ETA KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLAK
Hiriko atea

09.11 Igandea
20:00 ARTZINIEGA
ODOLOSTE DASTATZEA
Goikoplaza

09.11 Igandea
21:00 ARTZINIEGA
INTERKUADRILLA ETA ARGAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Goikoplaza

09.11 Igandea
22:00 ARTZINIEGA
JAIEN AMAIERAKO TRAKA
Goikoplaza

BARANBIOKO JAIAK

09.08 Osteguna
17:00 AMURRIO
IGEL-TOKA TXAPELKETA
Garrastatxu

09.09 Ostirala
19:00 AMURRIO
TORTILLA TXAPELKETA
Garrastatxu

09.09 Ostirala
20:00 AMURRIO
GANORABAKO'S
Garrastatxu

09.10 Larunbata
09:30 AMURRIO
TXIRRINDULARITZA LASTERKETA
Barnabio

09.10 Larunbata
11:30 AMURRIO
PAELLA TXAPELKETA
Barnabio

09.10 Larunbata
16:30 AMURRIO
MUS TXAPELKETA
Barnabio

09.10 Larunbata
16:30 AMURRIO
KETTLEBELL ERAKUSKETA, BORJA OTAOLA KRÖBEL MUNDUKO TXAPELDUNAREKIN
Barnabio

09.10 Larunbata
22:30 URDUÑA
DJ RA
Antigua auzoa

09.10 Larunbata
22:30 URDUÑA
BERAKATZ ZOPAETA BOLETOEN ZOZKETA
Antigua auzoa

ETXAURRENGO JAIAK

09.10 Larunbata
19:30 AIARA
PARRILLADA ETA IZALDE TALDEAK GIROTUTAKO ERROMERIA
Etxaurren

09.11 Igandea
11:00 AIARA
TRIKITIAREKIN GIROTZEA
Etxaurreneko baseliza

09.11 Igandea
12:00 AIARA
MEZA NAGUSIA BASELIZAKO ZELAIAN ETA PROZESIOA
Etxaurren baseliza

09.11 Igandea
13:00 AIARA
AIARA DANTZA TALDEAREN ERAKUSTALDIA
Etxaurren baseliza

09.11 Igandea
14:30 AIARA
HERRI BAZKARIA ARANGUTXI TALDE KULTURALAREN ESKUTIK
Etxaurren baseliza

09.11 Igandea
16:30 AIARA
FALKONERIA ERAKUSTALDIA
Etxaurren baseliza

09.11 Igandea
16:30 AIARA
IGEL ETA BRISKA TXAPELKETA
Etxaurren baseliza

09.11 Igandea
20:00 AIARA
TXAHALAREN ZOZKETA
Etxaurren baseliza

INFO +
aiaraldea.eus

erreportajea

Gorbeia Parke Nazionala (1922-1927)

Egiriñaoko aterpea. **Indalecio Ojanguren**

Ehun urte bete dira aurten Bizkaiko Diputazio Probintzialak, Comunión Nacionalista Vascako diputatuen ekimenez, Gorbeiako mendilerroa Parke Nazional izendatu zuenetik.

Testua **Jesus Mari Garayo**

2022ko urte honetan, ehun urte beteko dira Gorbeia eremu babestu izendatu zutenetik. 1922ko abuztuaren 18an, Bizkaiko Diputazio Probintzialak Gorbeiako Mendilerroa Parke Nazional izendatzea erabaki zuen, Ramón de la Sota Aburtok, Antonio de Aralucek eta Antonio de Arguinzonizek, Comunión Nacionalista Vascako diputatuek proposatuta. Izendapenak mendilerroaren Bizkaiko zatia baino ez zuen hartu. Ekimenaren helburua izan zen txangozaletasunaren bidez lekuaren erabilera publikoa sustatzea eta kokagunetako jarduera ekonomikoak bultzatzea. Gorbeia euskal erakunde batek babestutako lehen gune menditarra izan zen.

Deklarazio horrek aukera eman zuen ekoizpen-inbertsioen programa modu koordinatuan gauzatzeko; izan ere, arrazoi batengatik edo besteagatik, Bizkaiko entitateak Gorbeiako eremuan modu bereizian jarri zuen martxan programa hori, hainbat alderditan: baso-berritzeak, larreen hobekuntza, behi eta ardi-aziendaren hazitarako ukuilua, txabolak eraikitzeko, askalekuak jartzeko eta bideak konpontzeko.

Hala ere, erabilera publikoa izan zen adierazpenaren alderdi nagusia. Tontor garaiena izateak eta igotzeko zailtasunek garaiko euskal alpinisten erreferentziazko mendia bihurtu zuten Gorbeia. Mendizaleek, gaua bertan igaro nahi zutenek, ez zuten beste aukerarik: satenean olanazko dendetan lo egitea, aterpe naturalak edo Sanatorioko pabilioi abandonatuak erabiltzea, eta baita txabolak ere, horretarako prest zeuden artzainekin kudeatu ondoren. Bilboko mugimendu txangozalearen buruzagiek aterpe bat eraikitzeko beharra azaldu zieten Bizkaiko agintariei. Proiektu hori izan zen Bizkaiko Foru Aldundiak 1920 inguruan egindako gestioen buru, leku hori gune babestu izendatzeko. Gorbeian aterpe bat eraikitzeko plan instituzionala, ordea, gelditu egin zen proiektatutako eraikuntzaren kostu handiagatik (170.000 pezeta).

Azkenean, Eleuterio Goikoetxea izeneko partikular batek eraiki zuen mendi-azpiegitura. 1921eko abuztuaren 11ko idazki baten bidez, Aldundiari helarazi zion babes etxola bat eraikitzeko asmoa, Egiriñaon: bertan, «Zallaroarte» parajean, 3,5 hektareako lursail baten jabe zen. Aterpeak gurutze formarekin dago eraikita, pagoz inguratutako zelai batean, eta 1922ko uztailaren 7an hasi zen, 20 lagunentzako zerbitzuak ematen. Eraikinak ostatu, higiene eta elikadura-zerbitzuak bermatu zituen, mantenu-pentsioa jasotzeko eta pertsonak eta janariak garraiatzeko zalduntza alokatzeko aukerarekin. Sexu desberdinetako pertsonek erabiltzea errazteko, 1923ko abuztutik urrira bitartean, bigarren gorputz bat eraiki zuen hegoaldean, sukalde eta gela independenteekin, eta harrera-gaitasuna handitu zuen zortzi pertsona gehiagotan. Horrela, euskal txangozaletasunak mendizaletasunaren praktika soziala sustatzeko azpiegitura bat izan zuen Gorbeian. Aldundiak 21.000 pezetako ekarpenarekin (kostu osoaren % 44) finantzaketan laguntzera mugatu zuen bere partaidetza, 47.763 pezetako balio zuen obrak. Emandako diru-laguntzen ordainetan, Al-

erreportajea

dundiak Goikoetxeari ezarri zion beste kontrapartida batzuen artean: lau ohe zenbait zerbitzu (argia, edateko ura, dutxa, sutarako egurrak, sukaldea) erabiltzeko eskubidea hogei urtez gordetzea haurtzaindegiko langileentzat; 2,5 hektarea lagatzea abeltzaintzako instalazioak eraikitzeko; eta, kuota berrien maximoa % 50era mugatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen Gorbeia gune babestu izendatzea, hiriko gizarte-mugimenduek eskatuta. Hala ere, tokiko erakundeek eta biztanleek ondo hartu zuten adierazpena. Tokiko korporazio batzuek, zehazki Zeanurik, aitorpenean aktibo bat ikusi zuten funtsean nekazaritzakoa den tokiko ekonomia baten dibertsifikazioan; 1926ko urriaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Zeanuritik gailurrerainoko ibilbidearen iturriak eta seinaleak konpontzea onartu zuen, 250 metroz behin egindako ibilbidea adierazita. Eleuterio Goikoetxea bezalako ekintzaile batek (Zeanuri, 1888-1956) egoera turismo alpinoko zerbitzuen hornitzaile bihurtzeko aukera gisa ulertu zuen, eta kontratista gisa, erakunde publikoen erabakiak gauzatu zituen (abeltzaintza, bidea seinaleztatzea...). Naturguneen babesa, garai hartan, sortzen ari zen politika publikoa zen, eta bertan lehentasuna ematen zitzaion borondatezko erabakiari, babes-eduki eta -figurei buruzko gogoeta teoriko-kontzeptualari baino. Sustatzaileen kultura eta filosofia protekzionista oinarrizkotzat jo daiteke. Deklaratzeko erabakiak ez zuen berariazko aipamenik egin zaindu beharreko eremuaren natura-balioei eta historia- eta kultura-ondareari buruz. Basoberritzean, hostozabalak (haritzak) erabili ziren, baina, neurri batean, jarduera protekzionistarekin kontraesanean, espezie nagusiak exotikoak izan ziren, batez ere, erretxinadunak (Laricio pinuak, Itsas pinuak, Silvestre eta Insignis pinuak, Abeto Douglas). Bestalde, Gorbeia gune babestu gisa katalogatzeko hautatutako figura ez zetorren bat parke nazionalaren egungo definizioarekin; izan ere, parke nazionalean, giza okupazioak eta ustiapenak eragindako funtsezko aldaketarik gabeko ekosistemak dituzten erabilera publikoko espazioak daude. Jendeak naturarekin harremana izan dezan laguntzeko eta abeltzaintza- eta baso-osagaietan ondare ekologikoaren aprobetxamendu ordenatua sustatzeko, kategoriarik egokiena natura-parkea da, hain zuzen ere 1994an Eusko Jaurlaritzak aukeratutako babes-figura, espazioa babesteko.

Gorbeia euskal erakunde batek babestutako lehen gune menditarra izan zen

Primo de Riveraren erregimen politiko diktatorialaren ezarpena oztopo politiko bat izan zen, nekez gaindi zitekeena eremu babestu gisa arautzeko izapidetzean aurrera egiteko

Babesgunearen legezko figura ematea, garai hartan, Estatuko administrazioaren eskumena zen. Primo de Riveraren (1923-1930) erregimen politiko diktatorialaren ezarpena oztopo politiko bat izan zen, nekez gaindi zitekeena eremu babestu gisa arautzeko izapidetzean aurrera egiteko. Inbertsio-programa diseinatua desegiten joan zen pixkanaka, 1927 aldera desagertu zen arte.

Egiriñao aterpea gaur egun. **Paulo Etxebarria**

kultura

“Ia 31 urtez Laudioko Musika Banda zuzendu ostean, saxofoia baino ez dut joko”

PEDRO IGNACIO ADRIAN GONZALEZ (Areta, 1964)

LAUDIOKO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA IZAN DA DENBORA LUZEZ, BAINA IBILBIDE HORI AMAITUTZAT JO DU. ERABAKIAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DITU.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Berriki jakin izan dugu Laudioko Musika Bandaren zuzendaritza utzi duzula. Nolakoa izan da erabakiaren prozesua, ia 31 urtez ardura hori izan ondoren?

48 urtez egon naiz bandan. Horietatik 40 zuzendaritza lanetan, 4 urtez zuzendari ordea izanda eta ia 31 zuzendari gisa. Horrenbeste denboraren ondoren, nekatuta sentitzen naiz eta tartea behar dut familiarentzako eta abar.

Bolada luze horretan musika banda beti izan da nire lehentasuna. Horregatik, udako oporrak galdu izan ditut. Izan ere, uda da kontzertu gehien dagoen unea eta jende guztiak ditu oporrak. Dena ondo antolatu beharra dago.

Bestalde, COVID garaiko bi urteak oso gogorrak izan dira. Pandemia gainditu baino lehen jakinarazi nuen nire gura postua uzteko. Edonola ere, koronabirusarekin ezin nion uko egin banda zuzentzeari. Ahalegina egin behar nuen eta egin nuen.

Bi urte horietan bandak bere jarduera ahalik eta gehien mugatu du, emanaldiei zein klaseei dagokienez. Debekatu ziguten klaseak ematea eta egoitza itxi ziguten.

Ondorioz, jendea berritzeko arazo latzak izan ditugu. Ikasle batzuk ikasketak utzi zituzten, geldialdi luze horren ondorioz. Bi urte horrelako elkarte batentzat mende bat da. Gauzak horrela, maiatzaren 22an, pandemiaren garai zailenak gaindituta, batzarrari adierazi nion zuzendaritza utzi nahi nuela, dena konpondu eta bideratu eta gero. Adostu genuen udan nik zuzentzea kontzertuak eta gero uztea.

Nik banekien kokoteraino bukatuko nuela, baina akordioa zen. Erabaki neurtua izan da.

Hala ere, bandan jarraituko dut saxofoi jotzaile gisa. Banda nire bizitza da.

Norbaitek hartu du zure lekukoa?

Bai, ezin dut bere izena esan momentuz, baina badago pertsona bat. Probatuko dugu. Lan-taldea dago batzordean eta zaila da.

Eta dena musutruk?
Baina ez nik bakarrik, besteok ere.

Zure ibilbide luze honetan, zeintzuk izan dira une goxoenak?
Zallako lehiaketan lortutako sariak, Najerako Nazioarteko Jaialdian Euskadi ordezkatzea, Donostiako Nazioarteko Hamabostaldian hautatuak izatea (nahiz eta ez ginen joan, Laudioko Jaiak zirelako eta kontzertuak genituelako)...

Abesti sorta zabaltzea, fitxategia handitzea, musika tresna berriak erostea... Ni sartu nintzenean plater batzuk eta bonbo bat baino ez zeuden.

Dena den, nahiko nuke, Laudioko Antzokia egiten bada, han kontzertu bat zuzentzea. Beste batzuetan egin dut, baina horrelako leku batean islatzen da entseguetan lantzen denaren benetako neurria.

“Laudioko Musika Banda izan da lehentasuna nire bizitzan, baina orain familiarentzako denbora behar dut”

Zein egoeran hartu zenuen banda?
Txarrean. Arazoak zeuden jendea berritzeko. Ni sartu nintzenean gazte bakarra nintzen. Gero hasi ziren neska eta mutilak batzen eta horrela egin dugu aurrera.

Aipatu duzu zure familiarentzako denbora behar duzula. Zure semearen lorpenek zerikusia dute horrekin?
Laudioko bandak lotura dauka lorpen horiekin. Bandako akademian sartu zen eta ez da emaitza onak lortu dituen bakarra. Ikasten duenak aurrera egiten du. Horregatik, ikasleen falta sumatzen dut, baita ganorazko musika eskola baten beharra ere Laudion.

Nire semeak lortu du Euskal Gazteen Orkrestan egotea, eta Nafarroako Kontserbatorio Nagusian ikastea, bakarlari moduan jotzen du... Ondo doa, beste batuk bezala, bestalde.

Hemendik aurrera zein da zure plana?
Saxofoia jotzea, beti gogoko izan dudana. Orain denbora daukat eta berreskuratzen ari naiz musika tresna. Inoiz ez diot utzi jotzeari, hori bai.

“Badago ni ordezkatuko nauen pertsona”

Konfiantza handia dut haiengan, badakitelako nola egin behar diren gauzak. Gainera, hau da unerik onena beste zuzendari bat sartzeko, hurrengo kontzerturako bi hilabete izango ditu prestatzeko. Kontuan hartu nik hilabete bakarrean bost emanaldi egin ditudala.

Zeintzuk dira zuzendariaren ardurak?
Zuzentzeaz aparte, denetarik. Egitaraua osatzea, partiturak bilatzea, beste bandekin harremanak izatea partiturak trukatzeko, sustapena, kartelak egitea eta jartzea, antolatzea...

Ez dago denborarik banda honetan. Banda profesional batean soilik mugatu zaitezke zuzentzera.

kultura

“Guztiok daukagu mezua barruan eta idaztean adierazten dugu”

IDOIA SOJOk ‘NIKO’ IPUINA ARGITARATU BERRI DU. HASIERAN TESTUA BAINO EZ ZUEN IDATZI, BAINA GERO ILUSTRAZIOAK SORTZEN ERE ANIMATU ZEN.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ipuina argitaratu duzu, ezta?

Hau da argitaratu didaten lehenengoa, baina hainbat daukat. Uneren batean erabaki nuen argitaletxeetara bidaltzea eta kritika atseginak jaso nituen. Azkenean aukeratu nuen bat, Mister Momo, Sevillakoa. Hor hasi zen guztia.

Gero pentsatu nuen nik egin nahi nituela marrazkiak. Izan ere, nik ikasketa teknikoak ditut, delineantea. Hortaz, ilustrazioaren ardura hartu nuen. Horrek denbora gehiago eskatu zidan. Berez, nik ez nuen prozesua ezagutzen; bidaltzen nituen nire fitxategiak eta erantzuten zidaten kalitatea ez zela nahikoa.

Ondorioz, programa profesionalak erabiltzeko beharra izan nuen; txartel grafikoa, argi mahaia eta tableta erosi nituen. Lortu nuen eta azkenean nire ilustrazioak dira liburuan daudenak.

Denbora asko eman duzu ipuinarekin?

Otsailetik abuztura, gutxi gorabehera.

Zeri buruzkoa da ipuina?

Bitxiena da protagonista Niko aterkia dela. Hori nik uste deigarria egin zitzaiela argitaletxeei. Zerbait ezberdina da. Hain zuzen, kontakizunak azaltzen du euritakoaren ilusioak zeintzuk diren. Edozein lagunena izan daitezke. Hortaz, ipuinak jorratzen du ilusioak ez galtzeko beharra eta gauzatzea, adiskidetasuna... Garrantzitsua da zauden leku horretan zoriontsu izatea. Nikoren kasuan, bukatzen du toki batean zeinean jende gehiena ez litzateke pozik egongo, baina Niko bai.

Esperientzia honen ostean, aipatu dituzun ipuin mordo horiek ere bidaliko dizkiezu argitaletxeei?

Bai. Orain nire buruan sinisten dut. Amestu dut eta bizi izan dut. Errealitate bilakatzen ari da. Egia esanda, orain banabil maleta bati buruzko ipuin batekin. Bere izena Kissa da -katua finlandiar hizkuntzan- eta bere izena aldatu nahi du, Margarita izateko.

Hala ere, bestelako ipuinak ere baditut, adibidez, hodei bati buruz. Bidali nahi ditut, baina aurretik

“Ipuina argitaletxeari bidali ostean pentsatu nuen nik neuk egingo nituela marrazkiak”

ilustrazioak egin nahi dizkiet. Horrek denbora beharko du.

Ipuin guztiek daukate mezua?

Nik ez diet mezua jartzen. Nire aburuz, guztiok daukagu mezua barruan eta idaztean adierazten duzu, nahita edo nahi gabe. Nire ipuina irakurtzean konturatu naiz baduela nire subkontzientean dagoena. Pentsatzen edo amesten dudana.

Hamaika lanpostu izan ditut eta guztietan izan naiz zoriontsu. Orain Laudioko San Roke Nagusien Egoitzan ari naiz, aurretik ingeniaritza batean ibili nintzen, Osakidetzan... eta guztietan egon naiz pozik.

Zentzu horretan esaten dut mezua gure baitan dagoela, baina tresna jarri behar diogu adierazteko. Agian justu ipuin horretan ez da islatzen, baina niretzat oso mezu garrantzitsua da sortzaileak izan behar garela. Guztiok jaiotzen gara irudimenarekin eta sormenarekin, baina maiz ixten ditugu edo ixten dizkigute ateak.

Gure eginkizuna da berriro irekitzea eta bereziki umeei eman behar diegu aukera guztiak sortzeko. Berdin dio haurra igeltseroa edo zirujaua izango den etorkizunean, sortzailea izango da bere beharrean eta beste modu batean egingo die aurre arazoei.

“Umeei eman behar diegu aukera guztiak sortzeko. Berdin dio haurra igeltseroa edo zirujaua izango den etorkizunean, sortzailea izango da eta beste modu batean egingo die aurre arazoei”

Ipuinak soilik idazten dituzu?

Ez, baina honek, ez dakit zergatik, eskatu zidan argitaratzea. Hasi nintzenean marrazten bajan nengoen, auto istripu batean kolpea eman zidatelako. Horrez gain, lagun bat ere txarto zegoen eta une horretan egin nuen.

Dena den, kontakizun laburrak ere idazten ditut eta eleberri batekin nabil. Horrez gain, duela gutxi heldu zitzaidan Argentinan senide batzuk ditugula. Etorri dira Okondora Garrastatxu abizenaren bila eta zorionez topo egin genuen. Kontatu zidaten euren amonaren historia, bere aitak agiri bat sinatu behar izan ziola Argentinara joateko, adingabea zelako, senarra ezagutu gabe ezkondu zela... Hala ere, hori oraindik landu behar dut. ‘La isla de fuego’ eleberria, ordea, landuago dago, pertsonaiak eta abar.

Zein adinetako umeek irakur dezakete liburua?

0 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jarri dugu argitaletxean. Kasu batzuetan gurasoek, lagunek edo senideek irakurriko diete umeei eta besteetan euren kabuz egingo dute. Agian 10 urtera arte irakur dezakete ipuina, baina uste dut eurek istorio konplikatuagoak lantzen dituztela.

Ipuina idazten zenuenean pentsatu zenuen umeren batean?

Ez. Hainbat jendek esaten dit ume bat dudala barruan. Bizirauteko gai izan den umea heldu sortzailea da eta nire barruko umea oraindik dago hor. Nik bi seme-alaba ditut, 12 eta 15 urtekoak, baina ipuina egin dudanean nigan pentsatzen egin dut. Ez niretzat, baizik eta jende ororentzat. Ilusioa izateko eta irudimena pizteko tresna moduan.

Nola eskuratu daiteke liburua?

Miste Momo argitaletxean, Amazonen, Agapean, Todostulibros.com-en, Fnac-en... Eurek 17 euroren truke saltzen dute eta nik 15 eurotan.

kultura

Urduña; folk musikaren hiriburu

Foru Plazan egin dituzte kontzertuak. **Endika Diaz**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eskaintza bikoitzaz gozatzeko aukera egon da asteburuan Urduñan. Alde batetik, Urdufolkek maila handiko musikariak ekarri ditu eskualdera eta horrek jendearen Urduñakoa zein kanpokoa- interesa piztu du. Horrez gain, hitzaldia edota kalejirak prestatu dituzte, El Trasno eta Getxa Goi taldeekin, esaterako. Bestalde, Koroatze Jaiek adin guztiak hartu dituzte aintzat, gastronomia -Bizkaiko Marmitako Txapelketa- edota umeen jarduerak antolatzeko.

‘Peke’ argazkilariaren ‘Biofilia’ murala kokatu du Zumalakarregin Kulturlab eragileak

‘Bigarren azala’ izena du egitasmoak **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bigarren murala jarri du Kulturlab eragileak Zumalakarregi etorbidean egokitutako txokoan. Orain arte Kulturlab-en itsaski bat egon da, eta gaur arratsaldean inauguratu dute bigarren alea. Hain zuzen, 'Peke' argazkilari laudioarraren Biofilia obra jarri dute ikusgai paretan.

Proiektua Laudioko Udalaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital fundazioaren babesarekin garatu dute. "Obra iragankorra da, eta datozen asteetan beste eskuhartze bat egingo da haren ordez", zehaztu dute azalpen euskarrietan. 1970. urtean jaiotako 'Peke' argazkilaria da egilea, eta eszenarako La familia inventada proiektuko Susana Saguer artista eszenikoa izan du modelo lanetan. Hain zuzen, Olarte eremuan ateratako argazkien collagea da murala. no nekezagoa izan arren, oso pozik daude emaitzarekin.

Iosu Vakerizzo zinema zuzendariak beste lau sari jaso ditu Estatu Batuetan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Zuzendari laudioarrak Los Angeles Underground Film Forum jaialdiaren aitorpenak jaso ditu

Estatu Batuetatik itzuli eta gero beste lau sari eskuratu ditu Iosu Vakerizzo zinemagileak Life in the XXI Century filmari esker. Pelikulak Los Angeles Underground Film Forum jaialdiko lehiaketa ofizialean parte hartu zuen eta lau sari merezi zituen, epaimahaiaren ustez.

Hain zuzen, 'underground' film onenaren, esperimentazio onenaren, kontakizun onenaren eta hizkuntza atzerritarreko pelikula onenaren kategorietan gailendu zen laudioarra.

Jadanik zazpi aitorpen lortu ditu bere lanarekin Vakerizzok, guztiak Estatu Batuetan. Lehenengoa urte hasieran izan zen eta beste biak udan.

Honakoa ez da izan aiaraldear bat Los Angelesen saritzen duten lehen aldia. Izan ere, David Gamboa zuzendariak ere aitorpena jaso zuen Los Angeles Independent Film Festivalen.

babestutako edukia

hezkuntza ATELIERRAK

HAURRAK
(2020tik aurrera jaiotakoak)

Artea eta eskulanak
NOIZ? astelehenero
ORDUTEGIA?
17:30-18:30
18:30-19:30

Dantza eta gorputz adierazpena
NOIZ? asteartero
ORDUTEGIA?
17:30-18:30
18:30-19:30

Irakurle kluba
NOIZ? asteazkenero
ORDUTEGIA?
17:30-18:30
18:30-19:30

Sukaldaritza
NOIZ? ostegunero
ORDUTEGIA?
17:30-18:30
18:30-19:30

HELDUAK

Arte eskola
NOIZ? astelehenero
ORDUTEGIA? 19:45-20:45

Osasun eta zaintza eskola
NOIZ? asteartero
ORDUTEGIA? 19:45-20:45

Sukaldaritza eskola
NOIZ? asteazkenero
ORDUTEGIA? 19:45-20:45

Helduentzako euskara ludikoa
NOIZ?Astearte eta ostegunetan
ORDUTEGIA? 10:30-12:00

*Taldea sortzeko 10 LAGUN behar dira

** BAJA EMATEKO hilabete batek aurrerapenarekin abisatu beharko da.

INFORMAZIO GEHIAGO
kokoriko@aiaraldea.eus
722 22 75 32 (Aritz)
www.faktoria.eus

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

kirola

“Oso esperientzia polita izan da Hockey Mundialean jokatzea. 40 urtetik gora ere badago bizitzerik”

SUSANA VERDE MENACHO (Laudio, 1976)
HOCKEY JOKALARIA ETA EPAILEA DA. INGALATERRAN EGON DA NAZIOARTEKO KOPA JOKATZEN ABUZTUKO BIGARREN HAMABOSTALDIAN. BI GOL SARTUTA ITZULI DA, ETA HOCKEYAN JARRAITZEKO GOGO IZUGARRIAREKIN.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Ez da kasualitatea nazioarteko hockeyan aritzeko aukera. Noiz hasi zinen kirol horretan?

25 urte inguru daramatzat hockeyan jolasten. Azken urteetan hockey epaile gisa aritu naiz, arbitro lanetan. Gasteizen arbitratu nuen azken aldiz Espainiako Kopan, kanpora joan bainintzen bizitzera, Castrora (Kantabria, Espainia). Hala ere, Laudioko beteranoen taldean aritzen naiz jolasten, Satorrak izenekoan.

Zenbat urte eman dituzu hockey partidak arbitratzen?

Ez dakit, 10-12 urte inguru. Gainera, zorte handia izan nuen: nazioartean Europako kopetan ere ibili nintzen. Esaterako, Italian, Ingalaterran eta Irlandan egona naiz. Horrez gain, kluben arteko kopa bat ikuskatu nuen Ourensen.

Oraingoa ez da izan Espainiako selekzioan parte hartzen duzun lehen aldia.

Ez, baina mundialeko lehenbiziko esperientzia bai. Abuztuaren 11tik 22ra egon gara Nottinghamen (Ingalaterra). Nik 40 urtetik gorakoen taldean jokatu dut.

Nolako esperientzia izan da zuretzat Hockeyko Mundialean aritzea?

Izugarria. Bi talde edo multzo egin zituzten gure kategorian, A eta B. Guztira 13 talde geunden, eta 6 partida jokatu ditugu. Guk bosgarren sailkatzea lortu genuen gure multzoan, baina nire ustez ez zeuden orekatuta. Izan ere, gure multzoa Argentinak irabazi zuen, baina guk 0-0 berdindu genuen euren aurka. Jolasten jarraitzeko sekulako gogoarekin bueltatu naiz.

Aurrelaria izanik, golik sartzea lortu duzu?

Ni aurrelaria naiz, eta partidetan denbora asko jokatu ahal izan dut. Gainera, bi gol sartu dut, eta beraz, oso sentsazio onekin itzuli naiz. Egia da, txapelketara 2 hilabete lehenago batu nintzela; eta baiezkoa ematea erabaki nuenetik prestaketetan aritu naiz. Taldearen barruan nengoela jakin nuenetik topera izan dut burua.

Nola prestatzen da Hockey mundial bat?

Azken bi hilabeteetan fisikoki prestatzen saiatu naiz: kirola egiten, elikadura zaintzen... Azkartasuna izateko pisua zaindu dut. Etxean libre izan dudan tarteetan abdominalak eta pesak egiten egon naiz, korrika... Hala ere, ez da erraza familia eta lan bizitza uztartzen. Edozelan ere, sekulako zortea izan dut: Getxoko kideekin entrenatzen ere aritu naiz bertan.

Eta orain? Nazioartean lehiatzen jarraitzeko asmoa duzu?

Gustatuko litzaidake. Urtero lehiaketa bat dago, Europako txapelketa eta Mundiala tartekatu egiten dira bi urtero. Ez dakit nirekin kontatuko duten. Datorren urtean Londresen izango da Europako txapelketa, eta hurrengoan (Mundiala) Bostonen. Gure mailan gastu ekonomiko guztiak jokalariaren gain geratzen dira, eta jende guztiak ezin du hori ordaindu. Esaterako, Txiletarrek kontatu ziguten bidaia eta hotelean 4.000€ utzi zituztela buruko. Diru asko da, eta domina baino ez dizute ematen. Hala ere, esperientzia gisa oso polita izan da.

Beteranoek ere baduzue sasoia. Kirolak ez dauka adinik?

Hasiera batean beldurrarekin itzuli nintzen, baina Laudion probatzea erabaki nuen, eta orain jada ez naute hemendik aterako ezta ur beroarekin ere! 40 urtetik harago, bada bizitzerik. Egia da adinak mugatu egiten duela, baina taldeak asko egiten du, ni engantxatuta nago. Garrantzitsua iruditzen zait gure umeek ikustea jende eta jarduera sanoekin zenbat gozatu daitekeen; lehiatzen aritu edo ez, bizitzak jarraitu egiten du edade batetik aurrera ere.

Laudioko hockey taldean jarraituko duzu, beraz?

Bai. Getxon jolasteko aukera eskaini didate, baina niretzat nire taldea hau da; eta hemen jarraituko nahiko nuke.

Hamarkada luzez bizi duzu hockeya. Egoera aldatu da?

Gazteetako nire oroitzapena holakoa da: edonoiz ikusten zenuen jendea hockey makil batekin kaletik. Orain ez. Garai batean talde asko geunden: Ganbegi, Arabatarrak, Satorrak, Fomento (Amurrion). Gerora, Ganbegi eta Arabatarrak batu ziren, eta Aiara taldea sortu zen.

Laudio ezaguna egin zuen hockeyak eskualdetik kanpo ere. Zer egin liteke kirola indartzeko?

Laudiok, izen edo ospe handia izan du gainera: oso udalerri gutxik dute belar hockeyko zelaia, edota hockey salan jolasteko pista. Udalak azpiegiturak hobetzen inbertsioa egin beharko luke (mendiaren alboan dagoenez zikina dago, eta mantenua eskatzen du), eta horrela, jende gehiago batuko litzateke. Probatu ez duena ere ausartzera animatzen dut hemendik.

kirola

Abuztuaren erdialdean egin zuen Amurrioko Mendiko Lagunak elkarteak udako zeharkaldia. Norvegiako paisaiek, bideek eta bidaiak utzitakoak partekatu dituzte sare sozialetan.

Norvegian barrena ibili dira Mendiko Lagunak

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Abuztuaren 23an itzuli ziren Amurrioko mendizaleak Norvegiatik. Mendiko Lagunak elkarteak urtero antolatzen du udako zeharkaldia, eta aurten munduaren iparraldera jo dute hango ibilbideak ezagutzeko asmoz. "Bost gau eman genituen Jotunheim parke nazionalaren barruan lo egiten", kontatu dute. Sare sozialetan zabaldu dituzte bidaiaren nondik norakoak eta argazkiak.

Orotara, lau etapa burutu dituzte: "Leku ikusgarrietatik igaro ginen, aintzira eta ur jauziz betetako haranabaletatik, elur-oreinez betetako lurralde basatietatik eta glaziarrez inguratutako lepoetatik". Dena ez dute mendia izan, ordea: "Ringebuko Stavkirke eliza, Lom herriko Norvegiako mendizaletasunaren museoa eta Oslo hiriburua ere bisitatu ahal izan genituen".

Jotunheimen parke nazionala bisitatu dute mendizaleek. **Mendiko Lagunak**

kirola

TXIRRINDULARITZA

Olatz Camino txirrindularitza profesionalean arituko da hurrengo urtean

Olatz Camino hainbat aldiz igo da podiumera azken denboraldian. **O.C.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Olatz Camino pozik dago bere buruan zituen kirol helburuak betetzen ari delako. Azken bi denboraldietan emaitza bikainak lortu eta gero, Eneicat - RBH Global talde profesionalera batuko da 2023an.

Eneritz Iturriaga kirolari profesional ohiak eta taldeko zuzendariak eskaini zion aukera hori ekainean bertan, eta duela hilabete bat baiezkoa eman zion laudioarrak. Taldeak duela hiru egun iragarri zuen Caminoren fitxaketa, eta azpimarratu du bere etengabeko lanaren jarraitzaileak direla.

Eneicat - RBH Global UCI Women´s Team kategorian lehiatzen da, hau da, errepideko txapelketa nagusienetan. Caminok uste du lehen urtea izanik, bere eginkizuna dela ikastea eta hobetzea: "Gehiago entrenatu behar dut, lasterketa garrantzitsuenetan parte hartu nahi izanez gero".

Izan ere, kirolaria Sub-23 mailan hasiko da, baina espero du elitean lehiatzeko aukera izatea: "Esan didate, printzipioz, UCIko Pirinioetako edota Estatu frantseseko zenbait probatan egoteko atea irekiko didatela".

2023an Abadiñon

2019an sortua, Eneicat - RBH Global taldea Leonen kokatuta dago. Ordea, 2023an Abadiñon finkatuko da, hangoa baita bere zuzendaria. Caminok goraipatu du berarekin lan egitea oso erraza dela eta gertutasunak horretan lagunduko duela. Laudioarrak nabarmendu du bere taldekideak ezagutzen dituela jadanik eta ondo moldatzen dela eurekin.

Azkenik, gazteak eskerrak eman dizkie gurasoei, euren laguntza gabe ezinezkoa litzateke profesional mailara heltzea eta.

FUTBOLA

Amurrio Club, aro berri bat hasteko prest

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurredenboraldiko partiduetan murgilduta daude uneotan jokalariak. **Amurrio Club**

Indartuta helduko dio Amurrio Clubek denboraldi berriari. Amurrioko futbol klubak hainbat gorabehera bizi izan zituen aurreko denboraldiaren amaieran. Uztailaren 15ean egin zuten bazkideen batzarra, eta bertan aurkeztu zuen bere dimisioa Miguel Angel Jauregi Unanuek, orain arte klubaren presidentea izandakoak. Orduan abiatu zuten zuzendaritza berria hautatzeko prozesua.

Gauzak hala, sukalde lanetan murgilduta egon dira klubeko kideak udan zehar, eta irailaren 2an jakinarazi zuten nork zuzenduko duen kirol elkartea hemendik aurrera. Laurentz Ibarrola Bedmar izango da presidentea, eta beste 12 pertsona izango ditu bidelagun.

"Aro berri bat"

Pertsona horietako bat da Iñigo Fraile. Berak azaldu dizkio Aiaraldea Komunikabideari Amurrio Cluben egondako aldaketak. Izan ere, kluba zenbait gatazketan murgilduta egon zen urtearen lehen zatian. Jokalari batzuek soldatak ez ordaintzea leporatu zioten zuzendaritza zaharrari, besteak beste. Baina Frailek ziurtatu du arazo horiek konponduta daudela dagoeneko, eta aro berri baten hasiera iragarri du.

Ildo horretan, argi zehaztu ditu zeintzuk izango diren klubaren aurtengo helburuak: "egonkortzea, ekonomikoki zein kirolaren aldetik". Aurrendeboraldiko partidetan murgilduta daude jokalariak uneotan, eta iraileko azken asteburuan ekingo diote lehiatzeari. Aurrera begira, Frailek aurreratu du 'Amurrio B' bat sortzea ere dutela buruan, baina ez du ezer aurreratu nahi izan, "urratsez urrats" joango direla argudiatuta.

Amurrioko beste futbol klubekin zubiak eraikitzea ere dute helburu. Harremanak sendotu nahi dituzte Etorkizuna eta Kaskagorri taldeekin, etorkizunean "lerro bakarra" eratu ahal izateko, 6 urtetatik lehen taldera joango dena. Modu horretan, honakoa lortu nahi dute: "6 urterekin futbolean hasten den haur batek ortzimugan lehen taldea izatea".

Horrez gain, zaleengan ere jarri nahi dute begirada. "Jendea partiduak ikustera animatzea nahi dugu, eta apurka-apurka zalego bat eratu ahal izatea". Horretarako lehen urratsa eman dute dagoeneko: bazkidetza kanpaina abiatzea. Amurrioclub.eus webgunean topatu daiteke horri buruzko informazio guztia.

Ateak irekita

Bukatzeko, Frailek nabarmendu du klubaren zuzendaritzaren ateak irekita daudela interesa duten herritar guztientzat. "Klubaren etorkizunaren alde apustu egin nahi genuen zenbait pertsona batu gara zuzendaritzan, horretarako beharra ikus genuelako, baina ateak irekita daude ekarpena egin nahi duen ororentzat".

herriko plaza

Gartzen
Zorionak Gartzen! Ez ahaztu astelehenean pantxinetak ekarri behar dituzula!!!

Faktoriako lagun gosetiak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 21ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

	2				8	5		7
3	5			9			2	
1	4	2				3	7	9
			9	3				
5			2	1				8
	6				1			
9					2		1	
7		8	3	6			4	

ERRAZA

		4						
	5		3	8			4	2
			6	7	4	5		
	7				8			
2	6			4		8		
3		8	5			6		
9	2				6	4		7
	8	6		2	5			
		5	4	3			8	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Urduña Hiria Herri Krosean parte hartzeko bi dortsal zozketatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak irakurleen artean

Urduña Hiria Herri Krosean parte hartzeko bi dortsalen zozketatuko ditu
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** irailak 16, 13:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

AZALERAKO IPUINAK

Idazlea: Saroa Bikandi, Maria Uriarte eta Peru Magdalena

Ipuinak, kontaktua, musika, soinuak batzean sortzen da CD bikain hau. Azalerako ipuinak kontatzen ditugunean, beste pertsonarekin kontaktuan jartzen gara, gure harremanak indartzen dira eta lasaitasun tartea eskaini bizitza azkarrean.

PORTUAK

Idazlea: Oihana Arana

Argitaletxea: Gaumin

Noiz uzten zaio haur izateari? Nerabezaroa garai gogor bezain interesgarria da.

Liburuaren protagonistak garai horretan sortzen zaizkion galdera, istorio, eta egoerei aurre egin beharko die, Itsaso zabaletik portuan amarratua egotera pasatuko da protagonista.

JOLAS GUNEA

IGERILEKU NATURALA

LEKUA: Espejo (Araba)

AZALPENA: Espejon dagoen den gune honek hainbat aukera eskaintzen ditu uretara sartzeaz gain.

Igerileku bat sortua dago, freskatzeko eta jolasteko. Omecilla errekak urez betetzen du igerileku hau.

Inguruan, zuhaitz askoren itzaletan, haurrek jolasteko parke bat, jateko edo egoteko mahaiak eta barbakoak egiteko guneak ere baditu.

Espejotik paseo bat emateko irteera bikaina edo paseoa eman ondoren freskatzeko gune ezin hobea.

GRIMM'SEN ALFABETOA

ZER DA?

Egurrezko 77 pieza magnetikoz osatutako jostailu bat da. Pieza hauen formagatik, kolore berdinekoak elkartuz, letra larriak osatzeko aukera ematen digu.

AZALPENA:

Piezek forma ezberdinak dituztenez, haurrek ez dituzte soilik erabiltzen letrak egiteko eta beraz, letrak ikasteko, baizik eta bestelako forma eta irudi batzuk egiteko ere.

Modu honetan, letrekin jolasten hasten dira, ondo pasatzen dute ikasten duten bitartean. Magnetikoak izanik, etxeko gune ezberdinetan jolasteko aukera ematen digu, sukaldeko hozkailuan, adibidez.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Iraila

Iraila heldu da, askorentzako hasiera hilabetea, batzuk abuztuaren 31n ospatzen dute urte amaiera, askorentzako irailean hasten baita urtea. Fase baten aldaketa, oporretan egotetik eskolara pasatzeko hilabetea, ordutegi oso egituraturik gabeko uneetatik, berriz ere egutegia pilatuta egotera, aspertzeko tarteak izatetik, norberarentzako tarterik gabe egoteko egunetara...

Iraila batzuentzat tristea da, gainera, eguzkia gero eta ordu gutxiago egoten da gure lurra berotzen eta gaua zein iluntasuna nagusituz doa. Beste batzuentzat, pozez beteriko hilabetea da, hilabete luzeen ostean lagunak berriz ikusteko aukera eskaintzen dielako.

Iraila erabiltzen da haurrei beraien ordutegiak guztiz betetzeko, eskola ordutegia gutxi ez balitz bezala, haurraren ordutegia arratsaldetan ere guztiz betea ikusi nahi dugu. Batzuetan, haurrak egin nahi dituen gauzez beteta, bestetan, gurasoek haur horietaz espero dutenaren arabera betetzen diete ordutegia. Kirola egin behar da, hizkuntzak garrantzitsuak dira, psikomotrizitatea beharrezkoa da, errefortzua behar du, irakurketan sakondu behar du...

Ordutegiak betetzerakoan ez bete iraileko indarrarekin, baizik eta haur hori ekainean zelan egongo den ikusiz, bere beharrak ondo aztertuz eta ez gure espektatibei erreparatuz, haurra haurra izaten utziz, jolasteko tarteak utziz, bere mundua eraikitzeko uneak eskainiz, esperimentatzeko, sortzeko, zikintzeko... denbora behar dute.

Ikasturtean ere aspertzeko tarteak izan behar dituzte haurrek, aspertzeko tarte horietatik loratzen baitira barruan dituzten jenioak, artistak, sortzaileak... Aspertzean, barruan duten izaera askatu eta beraien mundua sortuko dute, horretarako aspertzeko tarteak izan behar dituzte, pantailarik gabe, eskolaz kanpokorik gabe, eskolarik gabe...

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA



PUZZLea

Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

Ui, ene, hau da parea... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!

SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera

Myrabella

Alina Georgiana

JAIOTERRIA
ERRUMANIA

BIZILEKUA
OROZKO

BIDAIAREN XEDEA
FAMILIA BISITATU ETA OPORRAK IGARO

"Laudioko jaiak Donostiakoak baino dibertigarriagoak dira"

Nolatan amaitu du Errumaniako neska batek Laudioko jaietan?

Nire mutil-lagunaren aita Orozkon bizi da duela 10 urte baino gehiagotik eta udaro bisitatzen du. Orain elkarrekin gaudenez, elkarrekin etorri gara. Berez, iaz izan zen nire lehen aldia Aiaraldean, baina ez nuen herrietako jaiak ezagutzeko aukerarik izan, lehenago itzuli baikinen.

Oro har, giroa gustatu zaizu?

Izugarri gustatu zait. Arraro samarra izan da niretzat, jendeak goizeko hamarretatik edaten baitu. Goiz esnatu behar ginen, arropa jantzi, kalera atera eta edaten hasi. Hasieran prentsatu nuen: zer? Baina gustuko izan dut herritar guztiek elkarrekin disfrutatzen dutela, adina edo kultura edozein dela ere. Euren herria ospatzen zeuden denak, eta oso elkartuta. Jaiak ez dira dibertitzeko aukera hutsa, eta hori argi ikusi dut.

Errumaniak badu hiri edo herriko jairik? Hala bada, desberdinak dira?

Hiria ospatzeko jaiak baditugu, baina ez dira herritar guztiak hara joaten, pertsona-klase 'umilak' baino ez, edo hori da nire pertzepzioa. Errumanian gizarte-kategoria desberdinak daude, nahiz eta zuek bezainbeste gorroto dugun pertsonen arteko bereizketa hori. Oro har, jaialdi eta jai asko ospatzen ditugu, baina ez da ohikoa adin desberdinetako pertsonak festa berean aurkitzea.

Euskal Herriko jai handiagoetan ere aritu zara aurten. Zein gustatu zaizu gehien?

Bai, Donostian ere egon ginen. Nire ustez, Laudiokoak dibertigarriagoak dira; Donostian turista asko zegoen eta oso pertsona gutxik eramaten zituen jaietako jantziak. Su artifizial eta jende asko dantzan zegoen, bai, baina tokiko pertsona gutxi, nire ustez. Laudiokoak gehiago gustatu zaizkit.

Zer iritzi duzu euskal kulturari eta jendeari buruz?

Ez dakit iritzi sendo bat osatzeko aukera izan dudan, baina Valentzian bizi nintzen Erasmus egiten ari nintzela, adibidez, eta aldeak ikusi ditzaket. Bertan nerabeak gehiago dibertitzen dira, erromantikoagoa da. Norbait bi egunez ezagutzen banuen, nire lagun minak balira bezala jokatzen zuten. Euskal Herriko giroa helduagoa iruditzen zait eta, agian, hotzagoa.

Espero ez zenuen ezer azpimarratuko zenuke?

Donostia izan ezik, ez zait hain turistikoa iruditu eta oso arraroa izan zen niretzat; esaterako, tabernaz eta eguzkitakoz betetako hondartzak eta abar ez aurkitzea. Hori faltan bota dut, baina hondartza "basatiagoak" gustuko ditut, baita jendeak eskuoihal eta eguzkitako propioak eramatea ere.

ERRUMANIA

DESKRIBAPENA
Hego-ekialdeko Europako estatu burujabea da, Europar Batasuneko kidea 2007tik. Lehen Mundu Gerraren ostean egungo estatu bateratua bihurtu zen. Europako azken herrialde komunista izan zen.

AZALERA
238.397 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
19,68 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Errumaniera, erromaniera, ukrainera eta hungariera

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari Kalea 4-8. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
BASALARRAINA euskal TOPAGUNEA
ausolan

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK